

Liburutegiaren egunaren harira hainbat ekitaldi izan ziren eskualdean; Tolosan eta Belauntzan, esaterako, umeei opariak eman zizkieten

Erredakzioa

Irakurzaletasuna bultzatu aldera, ekitaldi ugari antolatu dituzte egunotan eskualdeko hainbat herritan. Hain zuzen ere, atzo izan zen Liburutegiaren Egunaren harira, bereziki txikienei zuzenduriko ekimenak antolatu zituzten udal ezberdinek. Guztietan helburua berbera izango da, gaztetxoak liburuen mundura erakartzea, modu interesgarri batean.

Tolosan, esaterako, liburutegiko kamisetak zozketatu zituzten, liburuak maileguan eramaten zituzten erabiltzaileen artean. Halaber, liburutegia zoriontzera joan zirenei gozokiak banatu zizkieten. Hala, pankarta txuri batean gaztetxoei aukera eman zitzaien liburutegia zoriontzeko. Aste osoan zehar egiten ari diren bezalaxe, liburutegiko txartela ateratzeko lagun bat eraman zuten bazkideek oparitxo bat jaso zuten, bertako arduradunen eskutik.

Belauntzan ere ospatu zuten Liburutegiaren Eguna. Bertan, liburutegiko berrikuntzak erakustiaz gain, herriraino gerturatu zirenek freskagarriak, gaztainak eta opariak jaso zituzten, Herriko Tabernaren atarian.